

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Familia ugarietako seme-alabentzako erosi edo berritutako betaurreko, audifono eta ortopedia-elementuak finantzatu egingo ditu Nafarroako Gobernuak

*luz familia ugarietzako 1.000 agiri gehiago egin ziren eta gaur egun 10.000 baino gehiago daude indarrean*

Lunes, 26 de agosto de 2013

Nafarroako Gobernuak [familia ugarietzako laguntzen deialdi bat](#) onartu du, entzumen-protesiak, preskripzio optikoak (betaurrekoak eta ukipen-lenteak, betiere arrazoiak estetikoak ez badira) eta ortopedia-elementuak erosteko edo berritzeko ohiz kanpoko eta ezinbesteko gastuak finantzatzeko.



Familia ugaria.

Ekimen hori Iñigo Alli Gizarte Politiketako kontseilariaren [foru-agindu](#) batean dago arautua (abuztuaren 26an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean), eta aurrekontua 218.000 eurokoa da.

Diru-laguntzak dira familia ugarien agiritan ageri diren seme-alabentzako erosi edo berritutako preskripzio optiko eta ortopedia-elementuak finantzatzeko; seme-alabek 25 urtetik beherakoak izan behar dute (entzumen-protesiaren kasuan 16 eta 25 urte artekoak).

Zehazki, entzumen-protesiatarako emango dira, gehienez, 500 euro; ortopedia-elementuetarako 250 euro; eta preskripzio optikoetarako 60 euro. Diru-laguntza ez da izango, inola ere, finantzatutako objektuaren kostua baino handiagoa.

Diru-laguntzak jaso nahi dituzten familia ugariak azaroaren 16a baino lehen egin behar dute eskaria, eta baldintza hauek bete behar dituzte: familia ugariaren agiria indarrean edukitzea, gutxienez azken bi urteetan Nafarroan bizitzea, agirian agiri diren senideak elkarrekin bizi direla egiaztatzea eta familia-unitateko errenta 45.171 euro baino txikiagoa izatea.

Eskariak aurkeztu daitezke, batetik, Nafarroako Gobernuaren erregistroetan; bestetik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen gaineko 30/1992 Legean

aurreikusitako lekuetan; eta azkenik, [www.navarra.es](http://www.navarra.es) webguneko [Zerbitzuen atalean](#). Familiek behar adina diru-laguntza eskatu ditzakete, baina ez da seme-alaba berarentzako gauza bera bitan finantzatuko.

### **Familia ugarien 10.000 agiri**

Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren urteko azken txostenaren arabera, 2012. urtearen amaieran Nafarroako 10.190 familiak zeukaten familia ugariaren agiria. Iaz, NBIk 1.065 agiri berri egin eta 2.958 agiri berri zituen.

Familia ugariak dira guraso bat edo biz eta hiru seme-alaba edo gehiagoz osatutako familiak; seme-alabak izan daitezke guraso batenak edo bienak, baina, betiere, 21 urtetik beherakoak izan behar dute (ikasten ari badira 25 urtetik beherakoak). Familia ugariaren agiria eskuratu dezakete, baita ere, honela osatutako familiek:

- Guraso bat edo bi eta bi seme-alaba, guraso batenak edo bienak, betiere seme-alabetako bat lan egiteko ezgaitua badago.

- Bi guraso, baldin eta biak minusbaliatuak badira (%33) edo bietako batek gutxienez %65eko minusbaliotasuna badauka, edo lan egiteko ezgaituta badaude (ezintasun iraunkorra), eta bi seme-alaba, batenak edo bienak.

- Aita edo ama banandu edo dibortziatu bat eta hiru seme-alaba edo gehiago, guraso batenak edo bienak, nahiz eta familia unitate desberdinetan egon, baldin eta ekonomia aldetik haren mende badaude.

- Bi edo hiru anai-arreba umezurtz, babespean, harreran edo zaintzan badaude eta tutorearekin, hartzaillearekin edo zaintzaillearekin bizi badira, baina ez haren lepotik.

- Hiru anai-arreba umezurtz edo gehiago, 18 urtetik gorakoak, edo bi anai-arreba umezurtz, baldin eta bat minusbaliatua bada, eta betiere elkarrekin bizi badira eta ekonomia aldetik elkarren mende badaude.

- Ama edo aita alarguna eta 21 urtetik beherako bi seme-alaba (ikasten ari badira 25 urtetik beherakoak).

Gogoratu beharra dago 2012ko irailean [familia ugarien agiri berria](#) jarri zela martxan: aurrekoa baino erabilerrazagoa eta egunero erabiltzen diren txartel-moten antzekoa da.